



## Haur txokoak Autonomia haurtzarotik lantzen

Gurasoen txokoa Flickr-eko kontuak 2 milioi bisita  
Zertan gabiltzan Jakintza *Erronka* lehiaketako finalean



jakintzaikastola

# agenda

## IRAILA

### LEHEN HEZKUNTZA

Maila guztiak: Donostiako zinemaldiaren barruan *Haritzaren bihotza* pelikula ikustera.

### DBH

Maila guztiak: *Jolas eta ekin* proiektua.

## URRIA

### HAUR HEZKUNTZA

Irteera herriko etxeak ikustera.  
Irteera herriko parkera hostoak, txotxak eta hariak biltzera.  
5 urtekoak: Ataunera bisita.

### LEHEN HEZKUNTZA

1. eta 2. mailak: EDP-k Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera antolatutako *Gora gure energia* lantzeko saioa.  
3. maila: Azoka ezagutzuz altxorren bila.  
4. maila: Arriarango urtegiara irteera.  
6. maila: Harrikruz eta Arantzazura irteera.

### DBH

Maila guztiak: Tolosako Kilometroetako *Erronka* lehiaketan partaide.  
Maila guztiak: Kurtso hasierako bilerak.  
2. maila: Donostiako Cristina Eneara irteera.  
2. maila: Txuri Urdin izotz jauergira irteera.

## AZAROA

### HAUR HEZKUNTZA

Animaliak ikustera irteera.

### LEHEN HEZKUNTZA

1. eta 2. mailak: Olioaren birziklapena lantzeko, Pirritx eta Porrotx-en eskutik, *Olibatxo* bideoaren ikuskizuna.  
2. maila: Ordizia Erdi Aroan ezagutzeko saioa, D'Elikatuz-en eskutik.  
2. maila: Xabierko gaztelura irteera.  
4. maila: Lareo eta Barandiaran museora irteera.  
6. maila: *Hondakinak eta kitto!* bisita Sasieta mankomunitatean.

### DBH

3. maila: Bilbora irteera.

## ABENDUA

### OROKORRA

Euskararen eguna.  
Santo Tomas eguna.  
Euskararen normalizazio plangintzaren barruan, *kidetze* ekintzak ikastetxeko talde guztien artean.

### HAUR HEZKUNTZA

Ikasle guztiak: Gabon bezperan Oletzeroren etorrera.  
5. maila: Planetarium-era irteera.

### LEHEN HEZKUNTZA

Maila guztiak: Gabonetako kantak herrian zehar.

### DBH

1., 3. eta 4. mailak: Txuri Urdin izotz jauergira irteera.  
1. maila: Zientzia museora irteera.



AMAIA AYERRA  
Jakintza ikastolako zuzendaria

## Erronka

Erronka berri baten atarian besterik ez nagoen honetan, bi emozio ditut kontrajariak: beldurra eta ilusioa. Batxilergoko ikasleekin izan ohi nituen elkarrizketetan agertu ohi zen dikotomia berbera da: egoera berriak eta ezagutza ezak ematen digun segurtasun gabezia, eta erronka berri batek sorrarazten dizkigun kilimak.

Egia da, hezkuntza mundua dagoeneko ez dela ezezaguna niretzat. Baina niretzat eguneroko berri honetan beste dimentsio ugari agertzen dira, irakasle ikuspegi soiletik ia pentsaezinak

direnak. Izan ere, ikastola bere osotasunean ikusteak eraikuntzako lau paretetik hasi eta gizartera eramaten zaitu, eguneroko errealitatek etorkizun hurbileko ikuspegira. Hala ere, erronkarik handiena, oraingo, beti gertu sumatzen dudana egunerokoari irteera egokia ematea da.

Oreka da ardatza, eta koherentzia helburu. Izan ginena ahaztu gabe, garena onartuz, izango garena lantzea. Ikastolako historia errespetatuz, mugak eta indarrak identifikatuz, historia egiten jarraitzea.

## Flickr-eko kontuak, 2 milioi bisita

Zenbaki bat besterik ez bada ere, ikararuta gaude web orri honek eta berau elikatzeko erabiltzen ditugun beste zerbitzuek izan duten harrerarekin. Izugarria! Oraingoan, argazkiak sareratzeko erabiltzen dugun Flickr zerbitzua izan da albiste pozgarri bat ekarri diguna. Duela urte eta erdi, geure argazkiak sareratzeko erabiltzen dugun Flickr zerbitzua milioi bat bisita izatera iritsi zela esan genizuen. Bada, ordutik hona 2.000.000 bisita izatera iritsi gara. Gurea bezalako ikastola txiki batentzat, ez al da ikaragarria?

Bi milioi esker zuei, egiten duzuen jarraipenarengatik, baina ez ditugu gure irakasleak eta ikasleak ahaztu nahi. Lehenak egiten ditugun ekintzetan kamerarekin hortxe daudelako eta argazkiak sareratzeko orduak ematen dituztelako. Bigarrenak, askotan, eurek ateratako argazkiak gure esku jartzen dituztelako eta, argazkiak ateratzeko unean, gurekin duten pazientziarengatik eta erakusten duten prestutasunarengatik.

Dinamika aberats horrek garbi erakusten digu gure interneteko hainbat zerbitzuek hartu duten garrantzia, eta horrek guztiak komunitate bateko daukagun konpromisoa berrestera garamatza.

### EL RETO

En estos momentos en el que me encuentro delante de un nuevo reto, tengo dos emociones contrapuestas: miedo e ilusión. Es la misma dicotomía que aparecía cuando hablaba con los alumnos del Bachillerato: la inseguridad que nos supone una nueva realidad, y el reto que ello nos crea.

Aunque esté adecuado a la educación, en estos nuevos quehaceres me aparecen nuevas dimensiones que desde el punto de vista de un profesor son impenables: ver a la ikastola desde un punto de vista general, mirando desde las cuatro paredes del edificio a la sociedad, desde la realidad cotidiana al futuro cercano. Aun así, el reto más grande por ahora ha sido darle soluciones a los problemas del día a día.

El eje está en el equilibrio, y la coherencia es el objetivo. Sin olvidar lo que fuimos, tejer el presente, para crear el futuro. Respetando la historia de la ikastola, identificando sus límites y seguir escribiendo la historia.

# Asebetetze inkestaren emaitzak

	2010	2011	2012	2013
Irakaskuntza - aprendizia	7,9	8	8	7,8
Tutoreekin harremanak	8,6	8,3	8,3	8,2
Lana ebaluatze modua	7,8	7,6	8	7,6
Orientazio zerbitzua	7,6	8,1	7,7	7,8
Eskolaz kanpoko jarduerak	7,6	7	7,6	6,8
Funtzionamendu orokorra	7,8	7,8	7,5	7,6
Ikastola eta guraso arteko komunikazioa	7,7	7,9	7,5	7,5
Gestio organoen funtzionamendua	7,7	7,8	7,3	7,5
Autobus zerbitzua	8,5	8,5	8,6	8,2
Jangela zerbitzua	7,8	7,9	7,3	8,3
Hurtzaindegia	8,3	8,5	8,3	8,4

Urtero legez Jakintza Ikastola osatzen dugun kide guztiek asebetetze ezberdinak betetzen ditugu, indarguneak eta hobetzeko ditugun aldeak identifikatzea garrantzitsua baita. Gurasoei dagokionez, HHko 5 urteko, LHko 3. eta 6.mailako, DBH 4ko eta DBHO2ko gurasoei pasa zitzaizuen inkesta. Bertan 11 atal nagusi agertzen ziren eta bakoitzari 1etik 10erako puntuazioa ematen zitzaion. Emaitzak ondorengoak izan dira:

## 2012/2013ko galdera irekiak

Haur Hezkuntza:

- Metodologiak hitz egiterakoan, irakurketa idazketa nola lantzen den gurasoekin partekatzea garrantzitsua da. Etxean orientabideak falta zaizkigu.

Lehen Hezkuntza:

- Ebaluazioaren inguruan badirudi hizkuntzetako

(euskara, gaztelania eta ingelesa) ebaluatze irizpideak ez datozela bat. Adibidez, gaztelera oinarritzko maila eta ingelesan oso ondo.

DBH-DBHO:

- No vemos la función del tutor personal, ya que el funcionamiento sigue siendo el mismo que cuando no existía tal figura.

- Proiektuen bidezko lanketa egiten da, baina gero ebaluazioko balorazioan ez dira ageri proiektua garatzeko erabili diren konpetentzia edo estrategiaren balorazioa. Azterketa batean oinarritutako balorazioa agertzen da.

Zerbitzuei buruzkoak:

- Zenbait egoeratan jangelako gora beherak 15

egunez behin folio batean jasotzea ez dut nahikoa ikusten.

- Hurtzaindegi zerbitzua normalean ez dugu erabiltzen baina behar izan dugunean egun solteak hartzeko aukera izatea oso positiboa iruditzen zaigu

## BRASILDARRAK JAKINTZAN

Rio de Janeiroko zenbait hezkuntza arduradunek, Madrilerako bidean zirela, kuku bat egin dute Euskal Herrian. Eleaniztasunaren inguruan gure proiektuak zein diren ezagutu nahian inguratu dira. Izan ere, Rio de Janeiron asmo horretan dabilta.

Gure ikastola bisitatu dute Ikastolen Elkarteko arduradunekin batera, eta bertan 4 eta 8 urte bitarteko haurrekin nola lan egiten dugun ikusi ahal izan dute. Horrela, euren metodologian txertatu ahal izateko zenbait ideia jaso dituzte.

Egindako bisitan bi saio ikusteko aukera izan dute: 4 urtekoena batetik, eta Lehen Hezkuntzako 2. mailakoena bestetik. Ikusitakoarekin gustura gelditu dira. Behin bi saio horiek amaitu ondoren, solasaldia izan dugu beraiekin, eta euren zalantzak argitzen ahalegindu gara.

Goiza ikastolan pasa ondoren oso gustura gelditu dira. Baina esaera zaharrak dioen bezala nahi genuke, "odolkiak ordainetan" izatea. Ea horrela suertatzen zaigun!



A finales del curso pasado se envió una encuesta a los padres del último curso de Infantil, a los de 3º y 6º de Primaria y a los de 4º de ESO y 2º de Bachillerato para pulsar el grado de satisfacción con respecto al funcionamiento de la ikastola. Para una mejor interpretación del gráfico, en él aparecen los once apartados en los que se dividía la encuesta, así como la puntuación media otorgada a cada uno de ellos (de uno a diez) en los cuatro últimos años.

Aunque tan sólo sea un número, estamos escandalizados con la aceptación que ha tenido nuestra cuenta de Flickr. Hace año y medio llegamos a la cifra de un millón, y a día de hoy podemos decir que hemos llegado a los 2.000.000 de visitantes. Muchas gracias a todos los profesores por sacar la cámara de fotos a todas partes, y a los alumnos por tener tanta paciencia. En la actualidad tenemos 62.000 fotografías en la red. ¡Un millón de gracias a todos!

En su camino hacia Madrid, una delegación de la educación de Rio de Janeiro nos hizo una visita a la ikastola acompañados por miembros de Ikastolen Elkartea. La delegación quiso conocer nuestro proyecto plurilingüe para que luego lo implementen en su ámbito. Estuvimos charlando con ellos sobre las posibilidades que ello trae consigo.

# HAURREN AUTONOMIA AREAGOTZEKO,



**Haur hezkuntzako gelen antolaketa eraberritzea dugu helburu aurten: txokotako lanketa berria. Jarduera zehatzak lantzeko guneetan banatu dira ikasgelak, eta hurrek askatasun osoa daukate batetik bestera salto egin eta une bakoitzean nahi duen jarduera egiteko. Hori bai, astea amaitzerako aurretik zehaztutako lanketa eginda izan beharko dute. Horrela, beste helburu batzuen artean, haurren autonomia eta inizatiba sustatu nahi du egitasmoak.**

Haur Hezkuntzako ikasleek autonomia eta inizatiba izan dezatela. Helburu horrekin berritu eta osatu da txokoen sistema 4 urteko eta 5 urteko ikasleen geletan. 3 urteko ikasleak ere egitasmo berarekin bat egingo dute urtarrilean; beraz, lehen hiru hilabete honetan egokitzapen prozesuan daude. Bestalde, Haur Hezkuntzakoei zuzenduta dagoen Txokoen sistema edo egitasmoa Urtxintxa proiektuak proposatzen du. Ondorioak ateratzeko oraindik goiz

bada ere, egindakoarekin oraingo irakasleen balorazioa positiboa da. Horrela dio Aitziber Albisu irakasleak. "Txokoetan lanean ari diren bitartean harremanak eta komunikazioa lantzen ari dira, eta euren nortasuna eraikitzen doaz".

Beraz, proiektuaren berrikuntza eta hobekuntza gelak antolatzeko eta jarduerak egiteko moduan dago. Horrela, ikasgela hainbat txokotan banatzen da, eta horietako bakoitzean,

astean zehar, hainbat alorretako jarduera zehatzak egin behar dituzte. Horiek egiteko, ordea, haurrei aukera ematen zaie txoko batetik bestera jauzi egin eta programatutako jarduerak euren nahierara egitea. Hori bai, hasieratik garbi utzita "astea amaitzerako, aurrez jarritako ariketak eginda eta finkatutako helburuak lortuta behar dituztela", dio Aitziberrek. Horrela garatzen du sistema honek haurren autonomia eta norberaren inizatiba. "Libreki ibiltzen dira eta ariketa bakoitza nahi dutenean egiten dute, baina, noski, ardura batzuk betez" zehaztu du.

Txokoak 4 eta 5 urteko gela

# TXOKOETAN ANTOLATUTAKO GELAK



guztietan daude, eta denera bost gune ezberdin bereizi daitezke, **harrera txokoaz** gain. Azken horretan astean zehar egin beharreko jarduerak azaltzen zaizkie haurrei. Eta egin behar dituzten lan edo jarduerak **txoko txuria, matematika txokoa, hizkuntza txokoa, plastika txokoa eta jolas sinbolikoen txokoan** biltzen dira. Behin txoko bakoitzeko egitekoak azalduta, haur bakoitzak nahi duenean eta nahi duen ordenan egin ditzake, eta hortxe dago, hain zuzen ere, orain arte lan egiten zen moduarekiko aldaketa.

Izan ere, Urtxintxa proiektuak **betidanik** proposatu du txokoen sistema. “**Eta guk, Jakintzan,**

**gela txokotan banatuta eduki dugu beti**”, azpimarratzen du Aitziberrek. Baina orain arte txokoetako lanak irakasleak zehaztutako unean egiten ziren, klaseko kide guztien artean, talde handiagoan edo txikiagoan. Orain, ordea, lanak noiz egin eta nondik hasi irakasle bakoitzaren esku jarri dira, euren ekintzen arduradunak izan behar direla garbi utziz.

Era horretara, pixkanaka, erabakiak hartzen, denbora antolatzen eta ikaskideekin negoziatzen trebatzen doaz, eta baita ikasten ere. Adibidez, irakasle batek matematika txokoan lan egin nahi badu, lehenik bertan lekurik baden ikusi beharko du eta beharbada

han daudenekin negoziatu beharko du bere partaidetza. Izan ere, txoko bakoitzean kopuru mugatua aritu daiteke lanean. Beraz, irakasle bakoitzak nahi duenean lan egingo duela aipatu arren, egia osoa izateko, ahal duenean ere gaineratu beharko zaio aurrez esandakoari.

Aukera berri horrek, gainera, onurak sortarazi ditu geletako espazioaren kudeaketan. Aitziberrek azaldu duenez, **txokoak** gelaren bueltan kokatzen direnez, lehen baino mahai gutxiago behar dituzte.

“**Lehen mahaiek asko okupatzen zuten, baina orain denek batera lan berdina egin behar ez dituztenez, espazio berriak sortu dira gelan**”.

Beraz, txokoen sisteman egin diren aldaketan bidez hauxe lortu nahi da: haurrek euren ikaste prozesuan protagonistak izanik, hau da, askatasun osoz euren lanak aurrez jarritako epean egiten eta ongi egiten ikastea. Horretarako, noski, irakasleek lan berezia egin behar dute. “**Gure eginkizuna haurren jarrerak eta ohiturak lantzea izango da, programazioa egitea, irakasleak behatzea, jarraipen zehatza egitea, ebaluazio tresnen irakurketa egitea eta materiala haurren esku jartzea**”, Aitziber Albisuren esanetan.

Zenbaitetan, askatasunean euren ardurak burutzea oraindik ikaskizun dutenez, irakasleen jarraipenak zehatzagoa izan behar duela onartzen du Aitziberrek. Edonola ere, horretan datza egitasmoaren muina: “**Jarrera horiek aldatzea eta jabetzea dituzten ardurak erabakitako epean burutu behar dituztela**”. Hor dago eraberritze honen alde nagusia. Iraganean irakasleen ardura zen haurrei adieraztea noiz zer egin behar zuten. Orain, aldiz, haurrek eurek aukeratzen dute lana egiteko garaia, modua eta zenbatekoa.

# ZER EGITEN DA TXOKO BAKOITZEAN?

## Harrera txokoa

Txoko guztien oinarrian dago harrera txokoa. Miriam Calvo irakasleak azaltzen duenez, denetan garrantzitsuena da, abiapuntu gisa ulertu behar baita. Astean zehar zein lan izango duten bertan azaltzen zaie haurrei, eta eguna ere bertan hasten da. Zein egun den, zein dagoen klasean eta zein ez... " Lan guztien oinarrian dago" . Horrez guztiaz gain, txoko batetik bestera aldatzeko, haurrak harrera txokotik igaro beharra dauka.

## Txoko txuria

Etxearen eta ikastolaren artean zubi lana egiten du txoko honek. Izan ere, astean zehar landuko den gairen batekin lotuta etxetik ere materiala ekartzen baitute klasera. " Ez da jolasteko txoko bat, gaiarekin lotutakoa lantzeko, eta etxean zertan ari garen jakinarazteko baizik" , zehaztu du Calvok. Esaterako, orain dela gutxi bidaia agentziak izan zituzten gaitzat, eta haurrek etxetik mapak, munduko bolak, informazioa eta antzekoak ekarri zituzten.

## Matematika txokoa

Hitzak berak azaltzen duen bezala, zenbakiak eta logika lantzeko aukera ematen du matematikaren txokoak. " Zenbakiekin zerikusia daukaten ariketa guztiak bertara bideratzen ditugu" , azaldu du Calvok. Gauzak horrela, ariketa ezberdinak lantzen dituzte. Besteak beste, zenbakien lanketa, puzzleak, eraikuntza jolasak, kartak... Funtsean problemak egiten dituzte bertan haurrek.

## Hizkuntza txokoa

Hizkuntza idatziarekin zerikusia duen guztia txoko honetan lantzen dute haurrek. Liburutegiaren ondoan kokatu ohi da gune hau, eta bertan ariketa ezberdinak egin behar izaten dituzte. Adibidez, " oharren bat idatzi behar duenean, ipuinak irakurtzen dituztenean edo txontxongiloekin jolasten dutenean txoko horretara joan beharra daukate haurrek" , nabarmendu du Calvok.

## Plastika txokoa

Esku lanak egiteko lekua izan ohi da plastikara bideratutako txokoa. Mural bat, edo horma irudi bat gauzatu behar baldin bada, lanketa hori horretara bideratutako mahaiean egin beharko dute haurrek. " Plastikari dauzkagun margo, kola, guraize edo bestelakoekin txoko horretara joan behar da, ezin da marrazkiak egitera beste leku batera joan" , dio Calvok.

## Jolas sinbolikoen txokoa

Txokorik askeena da, bertan haurrek sinbolikoki jolasten baitute. Hau da, panpin, diru, edo mekanikako elementu ezberdinekin, irudimena lantzea bultzatu nahi du txoko honek. " Dendetara, medikuetara edo dena delakora jolasteko aukera ematen die haurrei" .





## El nuevo sistema de txokos, para promover la autonomía de los niños

Promover que los niños de Educación Infantil tengan autonomía e iniciativa. Ése es el objetivo del nuevo sistema de txokos que se ha puesto en marcha entre los alumnos de 4 y 5 años. Los de 3 años empezarán en enero, y para ello han estado adecuándose hasta ahora. El proyecto se ha puesto en marcha este año, y está dentro del proyecto Urtxintxa. Aunque todavía es pronto para hacer una valoración, las profesoras la han evaluado positivamente, porque mientras los niños están trabajando en los diferentes txokos, “están desarrollando la comunicación y se están relacionándose entre ellos”, asegura la profesora Aitziber Albisu.

El sistema de txokos organiza las tareas y la clase de un modo novedoso. Al principio de la semana la profesora explica las tareas a realizar durante ése período, y a través de esa organización, la clase se diferencia en diversos txokos, donde en cada uno de ellos sólo se pueda realizar tan sólo una tarea. Al alumno se le da total libertad para que realice sus tareas a su antojo, dónde y cuándo quiera. Pero tienen que tener claro que “antes de acabar la semana tienen que tener acabadas todas las actividades”, explica Aitziber. De esa forma, se estimula la autonomía y la iniciativa de cada niño. “Andan libremente por la clase, realizando sus tareas, pero teniendo claro que tienen unas responsabilidades”.

Los txokos están en cada una de las clases de 4 y 5 años, y en total hay cinco txokos sin tener en cuenta el txoko de acogida. En este último, se adelantan los trabajos que se tienen que realizar durante la semana. Y esas tareas se realizan en el txoko blanco, en el de matemáticas, en el txoko de la lengua, el de plástica, y en el txoko de los juegos simbólicos. Una vez explicados los trabajos que tienen que hacer durante la semana, el niño tiene total libertad para trabajar como quiera. Y es ahí donde reside la diferencia con el modelo anterior. El proyecto Urtxintxa siempre ha propuesto el modelo de los txokos, y hasta ahora “hemos estado diferenciados de esa manera”, dice Albisu. Pero los alumnos realizaban las tareas todos al mismo tiempo, y paraban cuando la profesora así lo requería. Ahora, esa opción la tendrá el propio alumno.

De esa manera, los niños aprenden a tomar decisiones y a administrar el tiempo por su propia cuenta. También negociando con sus compañeros. Y es que en cada txoko sólo pueden entrar un número concreto de alumnos, y no se puede rebasar. Por eso, los alumnos no sólo tendrán que trabajar cuando quieran, también cuando los espacios requeridos estén libres.

Esa opción, además, resulta beneficioso a la hora de distribuir la clase. Según explica Albisu, los txokos están repartidos por toda la clase, y necesitan menos mesas. “Antes las mesas ocupaban un gran espacio, pero ahora los alumnos no tienen que trabajar todos al mismo tiempo, por lo que se han creado nuevos espacios que antes no existían”.

El sistema tiene como objetivo que el alumno sea capaz de trabajar por su propia cuenta, pero para que ello sea así, los profesores tienen que estar más atentos. “Nuestro trabajo consiste en modificar las costumbres y los hábitos de los niños, tal y como hacíamos anteriormente. Tenemos que preparar el temario, observar, evaluar, conseguir el material etc.”. Pero a veces tendrán que realizar un seguimiento más extenso, “ya que algunos alumnos no realizan su trabajo hasta el último momento”. Pero el proyecto también consiste en eso: cambiar esas costumbres, y hacer entender a los alumnos que tienen una serie de tareas que realizar.

# 3 URTEKOAK ETXEA ERAIKITZEN



Hiru txerrikumeen ipuinari loturik, 3 urteko ikasleak etxeak eraikitzen material bila irten ziren eta herriko parkean hostoak eta txobak bildu zituzten. Ondoren, bertan jolasean arratsalde pasa ederra egin zuten. Bildutako materiala ikastolara ekarri eta jolastokian etxeak eraikiz antzerki moduko bat egin zuten, eta eurek izan ziren ipuineko protagonistak. Antzezle ederrak ditugu, bai horixe!!



## GORA GURE ENERGIA!

*Gora gure energia* izeneko programa EDPk egina da Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin batera.

Gelan, programa horrek energia berriagarrien mundua gutxi kutsatzen duen altematiba iraunkor eta agortezin modura lantzeko aukera eskaintzen die ikasleei. Ingurumenarekiko errespetua izateak duen garrantzia modu aktiboan erakusteko aukera bat da, eta horrela, planetan bizitza hobetzeko ohitura iraunkorreko jarrerak sustatzen dira.

Jakintza ikastolako LHko 1. eta 2. mailako ikasleek saio horietan hartu dute parte.

Bertan, energia berriagarrien munduan barrena bidaia egin dute, energiaren mundu bakoitza ordezkatzen duen pertsonaiekin: eguzkiaren munduan, Nano Solanorekin, mundu hidraulikoan, Vera Riverarekin, mundu eolikoan, Lolo Eolorekin, mundu geotermikoan, Juan Volcanekin eta biomasaren munduan Tomas Biomasekin. Horrela, mundu bakoitzari dagozkion ezaugarriak ezagutu dituzte modu erakargarri eta hurbilean.

Bukaeran, opari bat jaso dute origarri modura haur guztiek: mundu berriagarrietarako pasaporteak.



## Euskaraz egunero!



Amaren eguna, aitaren eguna, liburuaren eguna, emakumeen eguna, irakasleen eguna, ikasleen eguna, kerik gabeko eguna, eta beste zenbait egun gogoratzen ditugu urtean zehar. Eta euskarak ere badu bere eguna, abenduaren 3an, Xabierko Frantzisko deunaren egunean.

Xabierko Frantzisko abenduaren 3an hil zen, eta kondairak dioenez, hil aurreko azken hitzak bere ama-hizkuntzan egin omen zituen. Egun hori Eusko Ikaskuntzak finkatu zuen, eta ondoren Euskaltzaindiak instituzionalizatu zuen Euskararen Nazioarteko egun gisara.

Jakintza Ikastolak, aspaldidanik, Euskararen Normalizazioa lortzeko asmatan, jarduera asko egin ditu, eta horien artean Euskararen Nazioarteko eguna ospatu. Aurtengoan ere egitarau zabala prestatu dugu maila guztietako ikasleentzat. Horien artean; Haur Hezkuntzakoek Argixoren urtebetetzea ospatu zuten; Lehen Hezkuntzakoek *Abesten duen herriak bizirik dirau* lemapean gelaz gelako emankizuna: buruhandiak, euskal-dantzen koreografia eta abar; DBHkoek *Ika Mizka. Eta hik? Nola bizi duk/n euskara?* saioa egin zuten, bideoen grabaketa eta bestelako jarduerak.

Baina euskararen egunak bere lekua izan behar du euskaldunon arteko eguneroko harremanetan!

Los alumnos de 3 años han ido al parque en busca de materiales para construir edificios. Pasaron una tarde en grande, y luego hicieron una actuación.

Los miembros de la campaña *Gora gure energia* estuvieron con los alumnos de 1º de Primaria. Les enseñaron todo acerca de las energías renovables.

El 3 de diciembre es el Día internacional del euskera, y como venimos haciendo desde hace años, en la ikastola lo celebramos de manera especial. Los de alumnos de Educación Infantil celebraron el cumpleaños de Argitxo, los de Primaria anduvieron bailando y cantando, y los de ESO participaron en las charlas *Ika Mizka*. Pero el día del euskera no se limita al 3 de diciembre, ¡todos los días son del euskera!



## JAKINTZA IKASTOLA *ERRONKA*-KO FINALEAN

Dagoeneko gutxi izango dira *Erronka*-ren berri izan ez duenik: Gipuzkoako Ikastoletako DBH3 eta DBH4ko gazteentzako lehiaketa. Aurten Tolosan ospatu diren Kilometroetako berrikuntza handiena izan da, eta arrakasta izugarria izan duela esan genezake. Hogei ikastolek parte hartu dute txapelketan, eta gure ikasleak lehia bizian

izan genituen azken momentura arte. Telebistako *El conquistador del fin del mundo* programa arrakastatsuan oinarrituta, antolatzaileek denetariko frogak ipini zituzten gure ikasleak egoera desberdinetan neurtzeko: buru azkartasuna, estrategia, abilezia, eta batez ere, taldean lan egiten jakitea.



## MUSEOAREN PROIEKTUA OSATZEKO IDEIA BILA GUGGENHEIMERA

DBH 3ko ikasleak Bilbora egin dute irteera lehen ebaluazio honetan. Teknologia klasean Ordizia museo bat eraikitzeke proiektua egiten ari dira, eta ideia berriak hartzeko, Guggenheim museoa bisitatu zuten. Bertan, eraikinaren ikusgarritasunaz gozatu, eta artelan berritzaileen munduaz ikasteko aukera aparta izan zuten ikasleek.

Eguna borobiltzeko, Ibaizabal ibaian gora itsasontziz paseotxo bat eman zuten. Gizarte gaien lantzen ari diren industriaren bilakaera gertutik ikusi, eta ondo pasatzeko tarteak izan zuten. Eguraldiak lagundu zuenez egun eder bati amaiera ezin hobea eman zien!



¿A día de hoy, quién no ha escuchado nada acerca de Erronka? Ha sido la gran novedad del Kilometroak que se ha realizado en Tolosa. Inspirados en el famoso concurso *El conquistador del fin del mundo*, los alumnos de 3º y 4º de ESO han tenido que trabajar el trabajo en grupo, la estrategia o la rapidez. Nuestros alumnos llegaron hasta la final, pero no pudieron conseguir la victoria.

Los alumnos de 3º de ESO están preparando el proyecto de construir un museo en Ordizia. Por ello, hicieron una visita al museo Guggenheim de Bilbao para poder tomar nota. Todos quedaron boquiabiertos por la espectacularidad del edificio y los cuadros que estaban expuestos. Para redondear la jornada, dieron un paseo por la ria Ibaizabal, y así pudieron contemplar el pasado industrial de la ciudad.

## GOIERRI AURKEZTUZ



Zeinen garrantzitsua den jendaurrean hitz egiten jakitea! Horretan aritu dira 4. mailako neska-mutilak, Goierri eskualdea beste aurkezten, alegia.

Lehenik, jakina, Orian barrena murgildu dira, Goierriko txokoak ezagutu dituzte eta hauen ezaugarri hainbat aztertu dituzte.

Eskualdeko eraikin, parke natural edota pertsonaia famatuei buruzko informazioa bildu dute interneten eta fitxa mota ezberdinak sortu dituzte.

Lan borobila osatu ondoren, aurkezpena nola egin entsegatzen hasi dira. Oraingo honetan gaztelaniaz aurkeztea tokatu zaie. Urdukitasun puntu bat izan duten arren, oso ondo azaldu dute landutakoa. Bejondeiela!

## JOLAS ETA EKIN PROIEKTUA

SERSO Euskal Herria, Gizakien lurra (Tierra de hombres) eta Save the children elkarteek haurren eskubideen, parte-hartze eta elkartasunezko egitasmoaren aldeko heziketa proposatzen digute DBH osoan lantzeko.

Hori dela eta, hilean behin ekintzen eta jardueren programaziorako aholkularitza jasotzen dugu. Helburua garapenerako heziketa sustatzea da, hezkuntza formalean zein ez formalean. Haurren eskubideekin zerikusia duten arloetan sakondu dute ikasleekin.

## HAUEK BAI ARTISTAK!

Serio arraio aritu dira 6. mailako ikasleak beraien ideiak, sentimenduak eta sormena eskultura bidez adierazten.

Plastikako saioretan, kartoia hartu eta Oteizaren, Bazterretxearen edo Txillidaren urratsak jarraituz, euren ekoizpen artistiko bikainak sortu dituzte.

Egindako lan bakoitzari artistaren biografia eta fitxa erantsi diote, eta ondoren erakusketa antolatu dute.

Azkenik, amaiera bikaina emateko, LHko ikasle guztiak gonbidatu dituzte erakusketa ikusgarri honetara.

Interes handiz jarraitu dituzte gure ikasleen

azalpenak, eta batek baino gehiagok ideiak ere hartu ditu bere ekoizpen propioak sortzeko.



## DANTZATU NAHI?



Lehen Hezkuntzako talde batzuen soinetako saioretan sartu gara eta Euskal Dantzak lantzen harrapatu ditugu.

Ekimen horrek soin-heziketan zehaztutako hezkuntza xedeak eta eskola aldirako finkatutako hezkuntza kompetentzia orokorrak eskuratzen laguntzen du. Horrela, gaitasun hauek garatzen dira: ikaslearen adimen motorra, komunikatzeko eta harremanetarako gaitasuna, emozioak adierazteko eta kontrolatzeko gaitasuna, eta ekintzak egokitasunez bideratzeko trebezia.

Bestalde, "Euskal tradizio ludikoa ezagutzea eta interpretatzea" agertzen zaigu lortu beharreko arloko kompetentzia espezifikoaren artean. Beraz, orain martxan jarri dugun lanketak, bete-betean bat egiten dugu gure curriculumak eskatzen digunarekin. Gainera, saio hauetan ikasitakoarekin, Euskararen Nazioarteko Egunean emanaldi bat eskaini digute kiroldegian.

Las presentaciones públicas son importantes, y los alumnos de 4º de Primaria también lo saben. Investigaron acerca de Goierri, y luego hicieron la presentación.

Las organizaciones Serso Euskal Herria, Tierra de hombres y Save the children nos proponen un proyecto educativo basado en los derechos de los niños para todo el ESO. Por eso, recibimos una serie de consejos de cómo abordar el tema.

Los alumnos de 6º de Primaria han estado aprendiendo acerca de los escultores vascos en las clases de plástica. A raíz de ello, han realizado sus esculturas, y les han enseñado a todos los alumnos de Primaria las obras creadas. ¡Éstos sí que son unos artistas!

Los alumnos de Primaria están aprendiendo cómo bailar nuestros bailes. Además hicieron una exhibición de lo aprendido en el Día internacional del euskera.

# irteerak

## Cristina Enean eta Txuri Urdinen

Goizeko 9:00etan, autobusak Cristina Enea parke aurrean utzi ondoren, ezkutuan dauden palmak eta ehunka urteko zuhaitzak ikusiz, parkearen muinora iritsi ginen. Han talde osoaren argazkia atera eta Ingurumen Baliabideen Etxearen aurrean geratu ginen.

Gela batek sendabelarrak eta ukenduak egiteko tailerren parte hartzen zuen bitartean, beste gelako ikasleek parkeko landare eta zuhaitz garrantzitsuenak ezagutzeko aukera izan zuten. DBH 2ko ikasleek basalandareak ezagutzen eta ukenduak egiten ikasteaz gain, inguruneke landareak identifikatuz ariztasun biologikoaren garrantziaz jabetu ziren.

Garaiz bazkaldu, eta Txuri Urdin izotz jauregian sartu ginen. Aldageletatik igaro ondoren, berehala pistan sartzeko baimena izan zuten. Begiraleek hainbat jolas antolatu zituzten eta libreki izotzetan ibiltzeko aukera ere izan zuten.

Gure ikasleek oso gustora ibili zirela esateaz gain, ziur gaulde berriro errepikatzeko gogoz geratu dira.



## Xabierko gazteluan

Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleak egun pasa joan ziren azaroan Xabierko gaztelura. Eguraldi apartak lagunduta, egun ederra igaro zuten Nafarroa aldean.





Zutik: Jon Barreros, Aitor Mendizabal, Jon Caballero, Hugo Barroso, Josu Iturrioz, Imanol Erauskin, Aitor Garin, Aitor Zubeldia, Dorleta Etxebeste, Ainara Urretabizkaia .

Erdian eserita: Pepi Iturrioz , Iñigo Ayerra, Adei Cuesta, Xabi Erauskin, Koro, Olatz Estensoro, Agurtzane Irastorza.

Beheran eserita: Naiara Zubiarrain, Amaia Mendizabal, Aitziber Sabino, Oihana Noain, Amaia Irastorza, Naiara Beramendi, Aloña Mujika, Eli Aierbe eta Erika Juarez.

